

IMMIGRAZIOAREN IKUSPEGIA GETXON

2008. URTEA //// 01. ZENB.



Migrazioak gizakia bera bezain zaharrak dira. Arrazoiak ezberdinak eta konplexuak izan dira beti. Kanpoko zein barruko irteera- eta sarrera-mugimenduek gure gizartea moldatu izan dute historian. Mugimendu horiek komunitate gisa definitzen gaituzte behin eta berriro eta aurrera egiten laguntzen digute. Amin Maalouf libanoar idazlearen irudi egoki batek gogorarazten digunez, hartzen gaituen herrialdea ez da orrialde zuria, ezta orrialde amaitua ere, idazten ari den orrialdea baizik. Horren erakusgarri dira orain emango ditugun datuak.

Immigrazioaren Ikuspegia Getxon argitalpenaren lehenbiziko zenbaki honekin, Immigrazio Unitateak 2004. urteaz geroztik urtero egiten duen analisia baino xeheagoa den laburpena egin gura dugu¹.

Helburu nagusia Getxok gaur egun duen aniztasunaren ezagutza gizarteratzea da. Erakunde eta elkarte publiko eta pribatuen esku-hartzea berriro interpretatu behar da, ezberdintasun handiak dituen gizarte baten ikuspegitik. Erakunde eta elkarte horiei, hain zuzen ere, doakie agiri hau. Eragile horien eginkizuna berriz planteatu behar da kultura arteko bizikidetzako eredu batetik.

Horretarako, ondokoak aztertuko ditugu:

- Ezaugarri demografikoak (sexua, adina, nazionalitatea, jatorria edo mugikortasuna, eta abar) eta atzerriko biztanleen bolumena.
- Aniztasunaren mapa Getxo udalerriko hiri espazioan, eta hezkuntza, gizarte eta lan eremuetan.

Emaitzak sexuaren arabera banantzea irizpide nagusietako bat da uneoro 2007ko txostenean, Behatoki S.L. kabineteak Getxoko Udalaren aginduz egina. Argitalpen honek Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren laguntza jaso du, tokiko diagnostikoak osatzeko eta konpartitzeko bideratutako ekintzen markoan, erakunde horrek sortzen duen jakintza baliatuz.

¹www.getxo.net orrialdean ikus daitezke, ibilbide honetan: Gizarte Zerbitzuak/Immigrazioa eta Kultur Artekotasuna/Immigrazioaren Tokiko Behatokia.


ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK

2008ko urtarrilaren 1ean, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuak erreferentzia-tzat hartuta, esango genuke EAEn 116.650 atzerritar bertan erroldatuta daudela. Hau da, biztanleria osoaren (2.130.000 bizilagun gutxi gorabehera) %5,4 dira.

Ikus ditzagun parametro demografiko batzuk, Getxo udalerrian 2008ko urtarrilaren 1ean erroldatuta zeuden atzerriko biztanleak eta hemengo biztanleak erkatzeko:

Atzerriko jatorria duen biztanleriaren pisua Getxoko biztanle guztien aldean, %6,1 da, hau da, 82.411 biztanletatik 5.048 atzerritarrek dira. Nabarmentzekoa da Getxok 564 biztanle galdu dituela azken hamar urteetan. Galera hori, ordea, handiagoa litzateke atzerriko 4.032 pertsona erroldatu ez balira. Pertsona horiek bertoko 4.596 bizilagunen galera berdindu egin dute.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Aldaketa absolut.	Aldaketa %
Guztira	82.975	82.564	83.789	83.955	84.024	83.624	83.004	82.687	82.327	81.746	82.411	-564	-0,6
Bertokoak	81.959	81.473	82.462	82.237	81.709	80.846	79.984	79.082	78.324	77.492	77.363	-4.596	-5,6
Atzerritarrak	1.016	1.091	1.327	1.718	2.315	2.778	3.020	3.605	4.003	4.254	5.048	4.032	396,8
Portzentajeak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100		
Bertokoak	%98,78	%98,68	%98,42	%97,95	%97,24	%96,68	%96,36	%95,64	%95,14	%94,80	%93,87		-4,9
Atzerritarrak	%1,22	%1,32	%1,58	%2,05	%2,76	%3,32	%3,64	%4,36	%4,86	%5,20	%6,13		4,9




Feminizazio tasa: 2008ko urtarrilaren 1ean, atzerriko biztanleen artean emakume gehiago daude bertoko biztanleen artean baino. Emakumeen portzentajea %59,4koa da atzerrikoen artean, eta bertakoen artean, %52,4. Feminizazio honek atzerriko bizilagunen lan-esparruekin lotura handia dauka. Izan ere, esparru horietako askok gaur egun zerbitzu pertsonalak edo bestelakoak eskatzen dituen gizarte batekin zerikusia dute.

Getxon erroldatuta dauden atzerriko bizilagunen **adin egitura** oso ezberdina da bertoko biztanleen egiturarekin alderatuz gero. Lanerako eta ugalketarako adin-tarteetan kontzentrazio handiagoa dago atzerritarren kasuan: atzerritarren %51,9, 25-44 urteen artean daude. Bertokoen kasuan, aldiz, tarte horretan %28 baino ez dago.

Beraz, bertokoen egitura zaharragoa da: guztien %16,7ak 65 urte edo gehiago ditu; atzerritik datozenen %3,3ak baino ez du adin hori.

	Getxo		Bertoko biztanleak		Atzerritarrak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
0-5	4.093	5,0	3.880	5,0	213	4,2
6-16	8.082	9,8	7.497	9,7	585	11,6
17-24	7.317	8,9	6.611	8,5	706	14,0
25-44	24.289	29,5	21.668	28,0	2.621	51,9
45-64	24.748	30,0	23.989	31,0	759	15,0
65-74	7.010	8,5	6.895	8,9	115	2,3
75etik gora	6.872	8,3	6.823	8,8	49	1,0
Guztira	82.411	100	77.363	100	5.048	100

Era berean, mendetasun indizea zein den jakiteko zenbait adin talde batzen baditugu, grafiko hau lortuko dugu:




Mendetasun indizea ateratzeko honako hau egin behar da: 16 urtetik beherako kopurua gehi 65 urtetik gorako pertsonen kopurua zati 17-64 urte arteko pertsonen kopurua. Indize honek, bertokoen kasuan, esaten digu lanerako adinean dauden bi pertsonako, mendetasuna duen pertsona bat dagoela (Indizea: 0,48). Atzerritarren kasuan, lanerako adinean dauden lau pertsonako, mendetasuna duen pertsona bat dago. (Indizea: 0,23). Horrek esan nahi du, atzerritarrei esker posible dela bertoko pertsonak mendetasun indize handiagoa izatea, haien artean mendeko pertsona guxiago baitago.

Atzerritar portzentajea barrutien arabera: Atzerritarrak nahiko modu homogeneoan banatzen dira Getxo udalerrian. Halere, Andra Mari barrutian portzentajea txikiagoa da.

	Bertokoak	%	Atzerritarrak	%	Guztira	%
1. barrutia (Andra Mari)	13.974	94,9	755	5,1	14.729	100
2. barrutia (Algorta)	37.139	93,5	2.597	6,5	39.736	100
3. barrutia (Areeta)	26.250	93,9	1.696	6,1	27.946	100
Getxo guztira	77.363	93,9	5.048	6,1	82.411	100

Barrutien araberako banaketa: Bertoko eta atzerriko biztanleen banaketa barrutien arabera aztertzen badugu, antzeko banaketa edo kokaleku irizpideak ikusiko ditugu. Beraz, Getxon erroldatuta dauden atzerriko bizilagunen kasuan, ezinezkoa da gizarte eta espazio segregazioaz hitz egitea.



Udalerrian 81 nazionalitate daude. Getxon erroldatuta dauden atzerritar guztien %78 ez da Europar Batasunekoak. %14,6 Europar Batasuneko 25 herrialdeetakoak dira, eta %7,4 Errumania eta Bulgariakoak (bi herrialde horiek, Europar Batasunekoak diren arren, aldi batez murriztuta dute EBko hiritartasun eskubideen gozamen osoa).

Daturik esanguratsuena da, guztien %66,3 Latinoamerikako herrialdeetakoak direla, are nabarmenagoa emakumezkoen kasuan, %72,1 baitira.

	Guztira	%	Gizonak	%	Emakumeak	%
25en EB	735	14,6	405	19,8	330	11
Errumania eta Bulgaria	375	7,4	149	7,3	226	7,5
Gainerako Europa	28	0,6	4	0,2	24	0,8
Magreb	108	2,1	68	3,3	40	1,3
Gainerako Afrika	26	0,5	16	0,8	10	0,3
Asia	339	6,7	172	8,4	167	5,6
AEB eta Kanada	80	1,6	43	2,1	37	1,2
Latinoamerika	3.346	66,3	1.183	57,8	2.163	72,1
Ozeania	11	0,2	8	0,4	3	0,1
Guztira	5.048	100	2.048	100	3.000	100

Herrialdeka, nabarmentzekoa da atzerriko biztanle guztien %30,5 Boliviakoak direla, hau da, atzerriko gizonen %26 eta emakumeen %33,7. Era berean, ikus dezakegu, Errumania, Paraguai eta Perutik gero eta pertsona gehiago datorrela, eta Kolonbia eta Ekuadorretik gero eta gutxiago.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Bolivia	2	2	3	15	41	84	305	593	860	1.203	1.542
Kolonbia	18	27	73	140	379	508	493	469	430	393	386
Errumania	16	14	9	10	14	57	110	153	236	288	362
Paraguai	2	1	1	1	3	7	19	66	129	216	336
Ekuador	4	6	6	99	232	336	445	458	409	343	326
Peru	15	20	34	45	49	60	67	108	134	137	185
Filipinak	75	92	118	133	159	173	168	173	179	146	184
Frantzia	69	77	98	130	141	151	144	160	161	158	165
Alemania	122	120	142	164	172	173	150	150	154	141	157
Erresuma Batua	130	131	144	157	178	187	147	165	160	143	148
Argentina	43	49	51	57	68	100	107	115	116	92	103
Maroko	35	32	41	42	53	58	66	96	89	80	102
Txina	19	13	14	17	18	29	34	50	68	91	100
Brasil	29	35	47	51	52	48	63	66	75	70	90
Italia	25	32	43	49	65	80	67	78	86	85	85
Bestelakoak	412	488	689	625	691	787	779	870	980	753	877
Guztira	1.016	1.091	1.327	1.718	2.315	2.778	3.020	3.605	4.003	4.254	5.048

Boliviarrengan ikusi dugun feminizazioa Paraguain ere gertatzen da, %80,4 emakumezkoak baitira. Emakumeak gehiago dira Latinoamerikako herrialdeen taldean. Errumanian eta Europako gainerako herrietan eta Ozeania, Magreb eta Afrikako gainerako herrialdeetako etorkinen artean, aldiz, gizonak dira gehiago.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	% Feminizazioa
Bolivia	530	1.012	1.542	65,6
Kolonbia	145	241	386	62,4
Errumania	140	222	362	61,3
Paraguai	66	270	336	80,4
Ekuador	131	195	326	59,8
Peru	72	113	185	61,1
Filipinak	83	101	184	54,9
Frantzia	75	90	165	54,5
Alemania	96	61	157	38,9
Erresuma Batua	86	62	148	41,9
Argentina	59	44	103	42,7
Maroko	65	37	102	36,3
Txina	58	42	100	42
Brasil	29	61	90	67,8
Italia	56	29	85	34,1
Bestelakoak	357	420	877	47,9
Guztira	2.048	3.000	5.048	59,4

Alta motak erroldan: Getxon bizi diren atzerritarren ia %60 atzerritik etorri eta zuzenean erroldatu dira Getxon. %32,4 EAEko edo estatuko beste udalerrri batetik dator eta %8,4 beste alta mota baten erroldatu da. Bada datu esanguratsu bat, gizarte eztabaidetan migrazioei buruz mantendu ohi den ikuspegi desordenatua eta kaotikoa haus-ten duena: %60 zuzenean atzerritik datoz, gehiago emakumeak gizonak baino. Beharbada biztanle horietatik asko ez datoz beren herritik kontratu batekin, baina bai ahoz hitzartutako lanpostu batekin, seguruenik jatorri bera duten eta dagoeneko hemen finkatuta dauden gizarte-sareen bidez lortua.

	Getxo	%	Gizonak	%	Emakumeak	%
Atzerritik datozenak	2.990	59,2	1.171	57,2	1.819	60,6
Beste udalerrri batetik datozenak	1.636	32,4	670	32,7	966	32,2
Erregistratu gabeko alta mota	238	4,7	121	5,9	117	3,9
Getxon jaioak	93	1,8	39	1,9	54	1,8
Beste kausa batzuegatiko alta	48	1,0	23	1,1	25	0,8
Alta omisioagatik	43	0,9	24	1,2	19	0,6
Guztira	5.048	100	2.048	100	3.000	100


Beste udalerrri batetik datozenetatik %70 inguru Bizkaiko udalerrri batetik dator. Zehazki, %30 inguru Bilbotik datoz. Bestiak, udalerrri mugakideetatik: Leioa, Erandio, Berango, Sopela eta Barakaldo.

HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK

Azaltzen diren datuak 2007ko iraileko matrikulazio datuak dira eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Estatistika Atalak eman ditu.

Guztira, 2007/08 ikasturtean, atzerriko 699 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitatekoak ez diren Getxoko ikastetxeetan. Hau da, matrikulatutako ikasle guztien %8,8 (7.934).

Lehen Hezkuntzako mailan atzerriko jatorria duten ikasleen pisu erlatiboa esanguratsua da. Maila horretan udalerrriko ikasle guztien %12,4 dira, eta oro har ikasle guztien %8,8. Horrek esan nahi du, ziurrenik, hezkuntza sisteman progresiboki ari direla sartzen, behetik gora.



Zentroaren titulartasunaren arabera, bertoko ikasleen banaketa itundutako zentro pribatuen (%47,5) eta publikoen (%52,5) artean nahiko antzekoa da. Atzerriko ikasleen %81,7, ordea, zentro publikoetan matrikulatuta dago. Gainerako %18,3a zentro pribatuetan dago.

Atzerriko ikasle guztien %82,7 Latinoamerikako herrialdeetakoak dira. Nazionalitateen arabera, Boliviakoak dira ugarietak: %44,8. Ondoren, kolonbiarrak (%11,3) eta ekuadortarrak (%10,3).

ADMINISTRAZIOKO ERREGULARTASUN-ADIERAZLEAK

Espainiako estatuan atzerritartasuneko araubide juridikoaren ezaugarri nagusia bertokoei eta atzerriko etorkinei aitortzen zaizkien eskubideen parekidetasun murriztuaren printzipioa da. Hau da, eskubide horien titulartasuna ez da berdina, nazionalitateari lotuta baitago.

Gainera, atzerriko biztanleei onartzen zaizkien eskubideen titulartasuna eta gozamenena, hemen bizitzeko eta lan egiteko administrazio-baimena izatearen mende daude. Baimen hori eskuratzea zaila denez, udalerriko bizilagun asko, EBtik kanpoko atzerritarrak direnez, administrazioko irregulartasun egoeran daude. Legezko dokumentaziorik ez daukatenez gero, are mugatuago dauzkate eskubideen titulartasuna eta gozamena, eta atzerritarrak gizarte-zaurgarritasun egoeran daude.

Erregulartasun tasa Getxon

Tasa kalkulatzeko honako hau egin behar da: bizileku-baimena duten pertsonen kopurua zati errolatutako pertsonen kopurua. Ikuspegiren arabera, esan dezakegu Bizkaian EBkoak ez diren atzerritarren %72ak bertan bizitzeko baimena daukela. Gogoratu beharra dago, EBkoen kasuan, EBko herritar izate hutsak hemen bizitzea eta lan egitea baimentzen diela. Errumania eta Bulgariako pertsonak, ordea, hemen bizitzeko baimena eduki arren, denboraldi batez atzerritartasun araubidean egon behar dute lan egiteko baimenei dagokienez.

Lan eta Immigrazio Ministerioak baimenen datuak probintzien arabera banantzen ditu. Horregatik, Bizkaiko datuak estrapolatzen baditugu, eta Getxon dauden EBz kanpoko nazionalitate nagusietako bakoitzari bere erregulartasun tasak aplikatzen badizkiogu, 2008ko urtarrilaren 1ean taula hau daukagu:

	Bizkaian erroldatutako atzerritarrak 2008-01-01	Bizileku baimena 2007-12-31 (MTIN)	Erregularitasun tasa (Bizkaia)	Getxon erroldatutako atzerritarrak 2008-01-01	Getxon baimendutako pertsonen kalkulua
Errumania	7.660	7.600	0,99	362	359
Kolonia	6.646	6.393	0,96	386	371
Ekuador	3.294	3.379	1,00	326	326
Bolivia	9.873	1.932	0,20	1.542	302
Peru	1.145	1.182	1,00	185	185
Brasil	2.654	1.098	0,41	90	37
Argentina	1.145	694	0,61	103	62
Paraguai	2.099	257	0,12	336	41
Maroko	3.942	3.215	0,82	102	83
Txina	2.014	1.900	0,94	100	94
Filipinak	273	383	1,00	184	184
EB ez, besteak	10.918	6.717	0,62	597	367
25 EB	6.467	7.278	1,00	735	735
Guztira	58.130	42.028	0,72	5.048	3.148

Getxoren kasuan, oso datu garrantzitsu eta deigarria da honakoa: boliviarrak ez dute behar bezain egonaldi luzea egin hemen bizileku-baimena eskuratu ahal izateko (kolonbiarrak edo ekuadortarrek, ordea, bai), Horrenbestez, boliviarrak %20ak soilik du hemen bizitzeko eskubidea eta horrek baimenduen azken bolumenean eragina dauka. Beste hainbeste gertatzen da paraguaitarrekin, kolektibo heldu berria baita. Horrenbestez, seguru aski, Getxon bizitzeko baimena daukaten pertsonen kopuru osoa 3.150 inguru litzateke. Beraz, Bizkaiko batez bestekoa apur bat beherantz haztatu beharko litzateke.

Administrazioko erregularitasunari lotutako bestelako adierazleak

2007. urtean, HELDU programan, Getxon bizi diren atzerritarrei arreta juridikoa emateko programan, arreta izan zuten pertsonen %62,3a emakumeak izan ziren (221), eta %37,7 gizonak (134).

Arreta izan duten pertsonarik gehienak Latinoamerikatik datoz, kopuru osoaren %96,0 dira eta %68,7 Boliviakoak dira. Hurrengoak, alde handiarekin, Paraguaikoak dira (%9,0) eta ondoren, Kolonbiakoak (%5,1). Kopuru hori 2007an zerbitzuak izandako kasu guztien %10 izan zen.

2007ko abenduaren 31n guztira gizartean errotzeari buruzko 46 txosten egin zituzten Gizarte Zerbitzuek, aldi baterako egoitza eskaera tramitatzeke Gobernuaren Ordezkaritzan. Kopuru osoaren %67,4 emakumeenak ziren eta %32,6 gizonenak.

- Eskaera guztien %80,4 18-39 urte arteko pertsonenak dira.
- Gizartean errotzeko eskaera hauen %58,7 boliviarrak dira.
- 2006. urtearekin alderatuz, 2007. urtean, bizileku-baimena tramitatzeke gizartean errotzeko txostena 20 pertsona gehiagok eskatu dute.

Gobernuaren Ordezkaritzan 34 txosten aurkeztu dira 2007an familia elkartzeko eskaerari bidea emateko etxebizitza edukitzea frogatzen dutenak.

- Elkartutako pertsonetatik 20 emakumeak dira (%58,8) eta 14 gizonak (%41,2).
- Eskatzaileen %44,1ak 31-40 urte dituzte.
- Eskatzaileek nazionalitate hauek dituzte: Ekuador (%23,5), Kolonbia (%17,6), Filipinak (%14,7), Peru (%11,8) eta Txina (%11,8).
- Familia elkarketa egiten duten pertsona gehienek errentamendu kontratua dute: kopuru osoaren %79,4.

Naturalizazio-adierazleak: Erroldan, atzerrian jaio diren eta espainiar nazionalitatea duten 1.828 pertsona ageri dira. Horietako %50,2 Latinoamerikako herrialderen batean jaio ziren. Nabarmendu behar da, halaber, espainiar nazionalitatea duten pertsonen %20,2 Europar Batasuneko herrialdeetan jaio zirela. Ezin dugu esan zuzeneko erlazioa dagoenik baina, hala ere, egia da honako hau: euskal emigrazio-prozesuekin zerikusirik ez duten jatorri jakin batzuk ikusita, kontu handia izanik betiere, esan dezakegu atzerritik datozen Getxoko bizilagunak nazionalitatea eskuratzen ari direla apurka-apurka. Gainera, gogoratu espainiar nazionalitatea eskuratzeko prozesu batzuek presuntzio balio hutsa dutela, zenbait herrialdetako gurasoen umeen kasuan adibidez (latinoamerikarrak batez ere), espainiar lurraldean jaiotzen badira.

LAN-ADIERAZLEAK

Ikuspegiren arabera, EAEn erroldatutako atzerritarren %82 16-64 urte arteko pertsonak dira, hau da, potentzialki biztanleria aktiboa. Getxon %80 inguru dira.

Bizileku-baimenen eta Bizkaiko Gizarte Segurantzako afiliazioen datuak Getxora estrapolatuz gero:

- Gaur egun, Getxon bizi diren EBtik kanpoko biztanleen hiru laurdenak bizileku-baimena edukiko luke.
- Baimendutako pertsonetatik (3.148 pertsona) %66a gizarte segurantzian afiliatuta legoke.
- Bizileku eta lan baimenak dauzkaten pertsonen bolumena igoz gero, afiliazioa ere proportzio berean igoko litzateke. Hau da, atzerriko ezkutuko ekonomia ez da immigrazioaren berezko ezaugarria, baizik eta atzerritartasun politikaren ondorioa, neurri handi batean.

Getxoko Enplegu eta Ekonomia Garapenerako Zentroak 2007an 2.367 laguni egin zien arreta Orientazio Zerbitzuan: haietako %75,5 bertokoak ziren eta %24,5 kanpokoak.

	Getxo guztira		Bertokoak		Atzerritarrak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Gizonak	1.086	45,9	790	44,2	296	51,0
Emakumeak	1.280	54,1	996	55,8	284	49,0
Guztira	2.366	100	1.786	100	580	100

Azken bost urteetan Orientazio Zerbitzua erabili duten pertsona kopuruan hazkunde mailakatua gertatu da (2003an 181 atzerritar, 2007an 580).

Lanari buruzko atala bukatu aurretik, azpimarratu behar dugu Getxoko Udalak gartzan dituen laneratze eta gizarteratze programetan gero eta atzerritar gehiagok parte hartzen duela: Auzolan programa eta Getxo Ekinean programa (2005ean 11, 2006an 14 eta 2007an 17).

GIZARTE-ADIERAZLEAK

Getxoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 3.501 familia unitateri egin diete arreta 2007an, hau da, 7.989 pertsonari, arreta eman zaion familia unitateetako kide guztiak kontuan izanik.

- Erabiltzaileen %56 emakumeak dira eta %44 gizonak.
- %64 bertakoak dira eta %36 kanpokoak.

2007ko abenduan Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsona guztien %54 bertokoak ziren, eta %46 atzerritarrak.

- Sexuaren arabera:

	Getxo guztira		Bertakoak		Atzerritarrak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Gizonak	277	23,90	162	25,90	115	21,60
Emakumeak	880	76,10	463	74,10	417	78,40
Guztira	1.157	100	625	100	532	100

- Errenta hori jasotzen duten bertoko emakumezkoen %61,1 pertsona bakarreko bizikidetzak unitateak dira. Atzerriko emakumeen kasuan, portzentajea askozaz ere txikiagoa da: %28,0. Bestela esateko, laguntzak pertsona gehiagorengana iristen dira bizikidetzak unitate handiagoen kasuan. Atzerritarren %50 honelako bizikidetzak unitateetan bizi dira (3, 4 eta 5 kide). Bertoko pertsonen artean, berriz, eredu hau %13ak dauka.

2007ko abenduan Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen zituzten pertsonen %59,2 bertokoak izan ziren. Gainerakoak atzerritarrak ziren.

- Sexuaren arabera:

	Getxo guztira		Bertakoak		Atzerritarrak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Gizonak	193	21,80	121	23,00	72	19,90
Emakumeak	694	78,20	404	77,00	290	80,10
Guztira	887	100	525	100	362	100

- Bizikidetzak unitatearen tamainaren arabera, Getxon GLL jasotzen dituzten bertoko biztanleen eta atzerriko biztanleen artean alde handia dago.

- Bertokoen artean gehiago dira pertsona bakarreko bizikidetzak unitatean bizi direnak atzerritarren artean baino. Horrelako unitateak bertokoen %40ak eta atzerritarren %18,5ak osatzen dituzte.

ATZERRITARRENGANAKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

Ikuspegik 2008ko ekainean bere pertzepzioen barometroan argitaratu zituen datuen arabera, euskal populazioak ez ditu etorkinak arazotzat jotzen, ez da arazo pertsonala ezta kolektiboa ere. Ez ditu hala hautematen ez berez ezta hartara behartuta ere.

EAEko biztanlerik gehienek uste dute EAEn benetan bizi den etorkin kopurua baino askozaz ere gehiago bizi direla bertan. Benetako datuak jakin ondoren ere, iritzi horri eusten diote. Halere, uste dute etorkinen presentziak hemengo ekonomiaren funtzionamendua hobetzen laguntzen duela.

Era berean, euskal biztanleriaren zatirik handienak estereotipo negatibo batzuk mantentzen ditu immigrazioa dela-eta, batez ere, etorkinei ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela egozten dietenak, hau da, lanetik baino gizarte laguntzetatik bizi direla uste duten pertsonak.

Oro har, euskal herritarrek asimilazioan oinarritutako integrazio eredua nahiago dute. Hau da, integrazteko ahalegina etorkinek egin behar dutela uste dute. Praktikan, horrek euren ohituretako asko bertan behera uztera behartuko lituzke etorkinak.

Gehienek uste dute erregulatuta dauden atzerritarrek bakarrik izan beharko luketela horrelako zerbitzuetarako eskubidea. Hori bai, egoera ez-erregularra dutenek ere osasunerako eta hezkuntzarako eskubidea izan beharko lukete.

Horregatik, euskal herritarrei eta bereziki getxotarrei, immigrazioaren irudi erreala eskaini behar zaie, datu zehatz eta kontrastagarrietan oinarritua.

Kultura artekotasunaren, trukearen eta elkarrenganako errespetuaren defentsa azpimarratu behar da, pertsonen arteko harreman motarik onena eta oparoena baita.